

### BATEGINIK KANPAINA

Zalantzarik gabe oso inportantetzat jo ditzakegu azken urteotan euskararen normalizazioaren arloan herri mugimenduaren aldetik eman diren urratsak, ahaztu gabe zenbait instituziok egindakoak. Ezin ukatu, ordea, garai horretan bertan, berreskurapenaren lehen sintomak agertzen hasi zaizkigun arren, euskararen sustutuzio prozesua ez dela geratu, alarma gisa funtzionatzen duten zenbait faktorek adierazten diguten bezalaxe:

- euskaldun elebakarrik ez da ia gelditzen,
- elebidunak gutxiengoa dira,
- euskara hutsez ezinezkoa da bizitzea (auto)marginatu gabe,
- euskarak ez du gune geografiko bat zeinean gizarte alor guztietan nagusi izango den,
- euskarak ez du gune sozialik zeinean nagusi izango den,
- gurasoen seme-alabenganako hizkuntz transmisio prozesuak huts egiten du,
- hizkuntzen erreproduzio sozialean eragiten duten faktore guztiek erdaren alde jokatzten dute eta euskararen kontra eta,
- euskararen erabilpena maila alarmagarrietara jaitsia dago.

Elkarrekin lehia dauden bi prozesu hauen (berreskurapenarena eta sustutuzioarena) arteko gatazka euskararen onerako korpon dadin funtsezkoa zaigu indarrak batzea, ahaleginak planifikatzea, elkarren esperientziez baliaturik bakoitzak bere sailletik lan egin baina era berean gainerakoekin koordinatzea, euskararen berreskurapeneranzko aurrerapausoak ahalik arinen urratzeko.

Izpiritu honetan oinarritzen da hasiera batean Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak (E.H.I.K.) eta Euskal Kulturaren Batzarreak (E.K.B.) antolatu, baina ondorenean beste hainbat talde eta erakunde ere bultzatzen ari diren "BATEGINIK" izeneko kanpaina: bat eginik Iparraldea eta Hegoaldea, bat eginik euskararen alde dauden gizarte-sail guztiak, bat eginik sektore politiko euskaltzale guztiak,...

Zentzu horretan kanpainak bi mailatako helburuak ditu:

- Kontzientziaketazkoak:

- . hizkuntza nazional gisa euskararen aldeko kontzientzia maila bultzatu: euskaltzaleena sendotu, axola gabeak euskaltzaletu eta euskararen kontrakoak neutralizatu.
- . Ikastolaren imajina sendotu euskal eskola publikoaren ardatz gisa, euskal eskola nazionalaren bidean.

- Helburu material zehatzak:

- . 200 bat milioi peztaren bilketa honela banatzeko: 100 milioi Seaskarentzat estatu frantsesarekin dituen zorrak ordaintzeko, mantenimendurako eta inbertsio berriak egin ahal izateko; 50na milioi Zangotza eta Tuterako ikastolek ikastetxe berriak eraiki ditzaten, 5 bat milioi euskararen defentsarako zerbitzu juridiko bat sortzeko.
- . 600.000 sinaduraren bilketa instituzio guztietan (Euskal Herriko Udaletxeetatik hasita Europako Parlamenturaino) euskararen eskubideak aldarrikatzeko.

Guzti hau aurrera eramateko, sektore erdaltzaletuenen artean euskara prestigiatzeko, gizarte sail guztietara iristeko, oro har, kontzientziaketa saio zabal hau egiteko komunikabideetan oihartzun haundia lortuko duen kanpaina burutzea erabaki da. Berau Martxoaren 12an hasi eta Maiatzaren 15ean amaituko da, hiru fase tan banaturik:

- Aurkezpen fasea: Martxoaren 12tik 20a bitartean. Kanpainaren helburu, zergati eta planteamenduaren berri emango da.
- Kontzientziaketa fasea: Martxoaren 12tik Apirilaren 15a bitartean. Publizitate lan garrantzitsuarekin batera herriz-herri antolaturiko ekintzak izango dute protagonismoa.
- Azkenekoa ekintza eta mobilizapen haundiena izango da, Apirilaren 16tik Maiatzaren 15era arte iraungo duena. Fase honetan, gizarte sail guztietara iritsi nahian, musika eta kirol munduko ospakizun ugari antolatzeko asmoa dago, eta baita kanpaina bukaera jendetsua ere Bilboko San Mamesen.

Kanpainaren garapenerako E.H.I.K. eta E.K.B.ko bosna ordezkari eta bi koordinatzaile orokorrez osatutako Kanpaina Batzorde bat sortu da, antolakuntzaren ardura bere gain hartua duelarik. Batzorde honek bulegoko idazkari, sortzaileen ekipo, marketing departamendu eta prentsa bulego baten laguntza ere badu, hala nola herrialdeetako koordinatzaile eta musika eta kirol sailletako arduradunena, besteak beste.

Era berean euskal kulturako zenbait pertsonaiek osatutako Aholku Batzorde bat sortu da Kanpainaren oinarriko gora beherak aztertu eta berresteko.

Baina Kanpainaren arrakastaren giltza herrietan sortuko den dinamikan dago. Batetik, euskalgintzan lanean ari diren talde guztiak (haurren eta helduen irakaskuntzan ari direnak, aldizkari edota irratitakoak, udalekoak, lantegi eta bestelako sailtakoak, kontzientziaketarako erakundeak, kultur elkarteak,...) batzean eta, bestetik, orain arte euskararen aldeko burrukan konpromezu pertsonalik erakutsi ez dutenengana iristean datza gure desafiorik garrantzitsuena.